



---

## FORU AGINDUA

Mendi Zerbitzua  
Expte. zk: 212/2018

### **Arabako Lurralde Historikoan ehiza gauzatzeko baldintza orokorrak, zenbait espezieentzako baldintza zehatzak eta 2018-2019 ehiza-sasoirako nahiz orkatzarentzat 2019-2020 ehiza-sasoirako baliiodun epeak onartzen dituen Foru Agindua**

Arabako Lurralde Historikoak badu ahalmena, erkidego osoko erakundeek arautu ez dituzten arlo guztietan, ehiza jarduerari buruzko arauak garatzeko, baldin eta erakunde horiek eman dituzten arauetara moldatzen bada. Ahalmen hori erabiliz, ekainaren 14ko 8/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko ehizarena, onartu zen. Foru arau horren 32. artikulua ezartzen du Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren Arabako Foru Aldundian ehiza arloan eskumenak dituen sailak onartuko duela Arabako Lurralde Historikoan ehizan jarduteko xedapenak arautuko dituen urteko foru agindua, non honakoak zehaztuko baitira gutxienez: ehizaren eta merkaturatzearen aldetik interesa duten espezieak; araudiak; leku desberdinetan espezie desberdinen ehizarako aplikagarri diren aldiak, baimendutako egunak eta orduak, ehizan egiteko modalitateak eta harrapaketak adierazita.

Halaber, martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko ehizarenak, 31. artikuluan zehazten du zein diren foru aldundiek urtero eman behar dituzten debekualdi aginduetan gutxienez jaso behar diren edukiak.

Kontuan hartu dira ehizaren araupetzean eragiten duten eta honako hauetatik eratorritzen diren alderdiak: estatuko araudia —1/1970 Legearen, ehizarenaren, Erregelamendua; eta 42/2007 Legea, ondare naturalarena eta biodibertsitatearena—, Europako Batasuneko 2009/147/EE eta 92/43/EEE zuzentarauak, eta Bernako 1979ko Hitzarmena.

Arabako ehiza arautzen duten arauak ahalik eta gutxiena sakabanatzeko, horrek dakarren administrazio izapidetzea gutxitzeko, errazago erabiltzeko, eta horiek ezagutu eta zabaltzeko, bidezko eta beharrezko jotzen da foru agindu bakar batean batzea foru agindu orokorraren edukiak urtero bakoitzak bere aldetik arautu eta zabaltzen zituzten aginduak, xedapen bakar batean bateratzeko Arabako Lurralde Historikoko ehiza arautzen duen araudi guztia, eranskinetan jasota bai araudi orokorra bai zenbait espezie, modalitate edo ehiza esparrutako ehiza aprobetxamenduari aplikagarri zaizkion baldintza espezifikoa; urteko aginduak, berriz, gai txikiak jasoko lituzke, hala nola egutegiak egokitzea eta horrelako txikikeriak.

Ondorioz, foru agindu honen bost eranskinak Arabako Lurralde Historikoko ehiza aprobetxamenduari aplikagarri zaion araudi guztia jasotzen dute, banaketa honen arabera:



- I. eranskina - Arabako Lurralde Historikoko ehizaren baldintza orokorrak finkatzen dituen araudia.
- II. eranskina.- Usoak eta birigarroak ohiko pasalekuetan ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia.
- III. eranskina.- Basurdea (*Sus scrofa*) ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia.
- IV. eranskina.- Oreina (*Cervus elaphus*) ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia.
- V. eranskina.- Orkatza (*Capreolus capreolus*) ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia.
- VI. eranskina.- Kuartangoko ehiza esparru sozialeko oilagorraren, basurdearen eta orein emeen ehiza aprobetxamendua arautzen duen araudia.

Burutu dira Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikako jarraibideak, ezarritako izapide teknikoak, eta entzun zaio Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari; ondorioz, dagozkidan eskumenen arabera eta Ehizaren Lurralde Kontseiluari kontsultatu ondoren, hau

## **XEDATZEN DUT**

**Lehenengoa.-** Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan ehizan aritzea arautzen duen araudiari, honekin batera doazen eranskinetan jasotako artikuluen arabera:

- I. eranskina - Arabako Lurralde Historikoko ehizaren baldintza orokorrak finkatzen dituen araudia.
- II. eranskina.- Usoak eta birigarroak ohiko pasalekuetan ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia.
- III. eranskina.- Basurdea (*Sus scrofa*) ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia.
- IV. eranskina.- Oreina (*Cervus elaphus*) ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia.
- V. eranskina.- Orkatza (*Capreolus capreolus*) ehizatzeko baldintza espezifikoak arautzen dituen araudia.
- VI. eranskina.- Kuartangoko ehiza esparru sozialeko oilagorraren, basurdearen eta orein emeen ehiza aprobetxamendua arautzen duen araudia.



**Bigarrena.-** Ehizarako baimendutako aldi hauek finkatzea, 2018-2019 kanpainarako eta, orkatza kasuan, 2019-2020 kanpainarako:

**Debekualdi erdia:** 2018ko abuztuaren 15etik irailaren 9ra (biak barne).

**Ehiza xehea:** oro har, 2018ko urriaren 12tik 2019ko urtarrilaren 31ra, biak barne, aldi horretan sartuta foru agindu honen I. eranskineko 2-B artikuluan ehiza xehe gisa sailkatutako espezieak ehizatzea.

Ehiza xeheko espezie hauek baimendutako aldi hauetan ehizatu ahalko dira:

Erbia (*Lepus* sp.) eta eper gorria (*Alectoris rufa*): 2018ko azaroaren 1etik 2019ko urtarrilaren 6ra, egun biak barne.

Uso migratzaileak eta birigarroak: behar bezala baimendutako usotarako tiro postuetan 2018ko urriaren 7tik abenduaren 2ra arte, biak barne, egun baimendu guztietan.

Harrezkero eta 2019ko urtarrilaren 31ra arte, bakarrik ehizatu ahalko dira, tiro postu finkoetatik, baimendutako aldiko ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan.

Arabako Errioxako esparruetan behar bezala baimendutako birigarrotarako tiro postuetan, 2018ko azaro eta abenduko egun guztietan eta 2019ko urtarrilaren 31ra arte ehizatu ahal izango da.

#### **Ehiza larria:**

Basurdea (*Sus scrofa*): 2018ko irailaren 8tik 2019ko otsailaren 28ra arte, biak barne.

2018ko irailaren 8tik urriaren 12ra eta 2019ko urtarrilaren 31tik otsailaren 28ra uxaldiaz baliatuta baino ezin izango da ehizatu basurdea.

Oreina (*Cervus elaphus*), 2018ko urriaren 12tik 2019ko otsailaren 28ra.

Orkatza (*Capreolus capreolus*), 2019-2020 denboraldirako, hauek izango dira baimendutako aldiak:

- a.- Arren udaberriko zelataldiak: 2019ko apirila, maiatza eta ekaina.
- b.- Ar eta emeen udazkeneko zelataldiak: 2019ko urria.
- c.- Emeen neguko zelataldiak: 2020ko urtarrila eta otsaila.
- d.- Ar eta emeen udazkeneko uxaldiak: 2019ko urria.
- e.- Emeen neguko uxaldiak: 2020ko urtarrila eta otsaila.

**Hirugarrena.-** Nekazaritza Sailak foru agindu honen eta bere eranskinen edukiaren edozein alderdi aldatu ahal izango du, inguruabar hauetakoren bat dela medio: eguraldia, biologia edo natura ondarea zaintzea, edo interes orokorrak edo ingurumenarenak babestea.

**Laugarrena.-** Indargabetzea foru agindu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapenak eta bereziki hauek:



85/2017 Foru Agindua, otsailaren 24koa, onesten duena 2017-2018 denboraldian Arabako Lurralde Historikoko ehiza esparruetan orkatza (*Capreolus capreolus*) ehizatzeke araudi espezifikoa.

246/2017 Foru Agindua, uztailaren 18koa, zeinaren bidez arautzen diren Arabako Lurralde Historikoko ehiza jardueraren berariazko xedapenak 2017-2018 denboraldirako, eta urriaren 18ko 339/2017 eta otsailaren 23ko 88/2018 foru aginduz onetsitako haren aldaketak.

252/2017 Foru Agindua, onesten duena Kuartangoko ehiza esparru sozialeko oilagorraren, basurdearen eta orein emearen ehiza aprobetxamendua arautzeke araudia, 2017-2018 ehiza denboraldirako.

289/2017 Foru Agindua, irailaren 18koa, finkatzen duena Arabako Lurralde Historikoan 2017-2018 ehiza denboraldian usoak eta birigarroak ohiko pasalekuetan ehizatzeke araudi espezifikoa.

290/2017 Foru Agindua, irailaren 18koa, onesten duena Arabako Lurralde Historikoko ehiza esparruetan oreina (*Cervus elaphus*) ehizatzeke araudi espezifikoa 2017-2018 denboraldian.

**Bosgarrena.-** Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

**Eduardo Aguinaco López de Suso**

Nekazaritza Saileko foru diputatua  
Diputada Foral de Agricultura

**María Asunción Quintana Uriarte**

Nekazaritza zuzendaria  
Directora de Agricultura



## I. ERANSKINA.

### ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO EHIZAREN BALDINTZA OROKORRAK FINKATZEN DITUEN ARAUDIA

#### 1. artikulua.- Ehizarako lursailak. Baimendutako egunak eta ordutegiak.

1.1 Arabako Lurralde Historikoan aprobetxamendu komuneko ehizarako lursailetan ezingo da ehiza gauzatu.

1.2 Oro har, Arabako Lurralde Historikoko ehiza esparruetan ehizan aritzeko baimendutako egunak honako hauek izango dira: baimendutako aldiaren ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak. Hala ere, ehiza esparru bakoitzeko baldintza tekniko-zinegetikoen agiriek eta ehizako jarraipen planek, bai eta ehiza aprobetxamenduko arau espezifikoek ere (foru agindu honen II. eranskinetik VI. eranskinera) jasotzen dutena aintzat hartu beharko da.

Espezie jakin batzuei dagokienez, arloan eskumena daukan aldundiko sailak ehiza esparru bakoitzerako onartutako ehizako jarraipen planetan zehazten diren egunak hartuko dira kontuan.

1.3 Oro har, 08:30etik 17:30era jardun ahal izango da ehizan, salbu eta debekualdi erdian basurdea, oreina, uso migratzaileak eta birigarroak tiro postu finkoetatik ehizatzen badira eta berariazko baimena badute; horien ordutegia kasuan kasuan finkatuko da baldintza espezifikoetan.

1.4 Foru agindu honetan aipatzen denean eguzki irteera eta eguzki sarrera edo eguna argitzea eta iluntzea, erreferentzia bezala hartzen da Institutu Geografiko Nazionalak argitaratutako egunsenti eta iluntze almanaka ofiziala (<http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2017/Vitoria-2018.txt> eta <http://www.fomento.gob.es/salidapuestasol/2018/Vitoria-2019.txt>).

#### 2. artikulua.- Baimendutako aldiak eta ehizatu daitezkeen espezieak: Kupoak.

##### A) - Debekualdi erdia:

1. Baimendutako aldia: Urtero finkatuko dira.

2.- Ordutegia: Ehizarako ordutegia izango da egunsentitik ilunabarrera arte, hau da, eguna argitzen duenetik ilundu arte.

3.- Harrapatu daitezkeen espezieak: Hona hemen debekualdi erdian harrapatu daitezkeen espezieak: galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), untxia (*Oryctolagus cuniculus*), belabeltza (*Corvus corone*), haitz usoa (*Columba livia*), pagausoa (*Columba palumbus*) eta txoloma (*Columba oenas*), usapala (*Streptopelia turtur*), mika (*Pica pica*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

4.- Kupoak: Usapalen kasuan, hiru ale harrapatu ahalko dira pertsona eta egun bakoitzeko.



5.- Ehizatzeko baldintzak: Uso migratzaileak eta birigarroak apeuaz edo apeurik gabe tiro postu finkoetatik eta debekualdi erdiko sasoiari ehizatzen badira, modalitate horretarako foru agindu honen II. eranskinean ezarritako ehizako arau espezifikoak aplikatuko dira.

**B) - Ehiza xehea:**

1. Baimendutako aldia: Urtero finkatuko dira.

2.- Ordutegia: Ehizatzeko ordutegia I. eranskin honen 1.3 artikuluan oro har finkatutakoa izango da (08:30etik 17:30era).

3.- Harrapatu daitezkeen espezieak: Honako hauek dira ehiza xeheko espezieak:

Ugaztunak: Untxia (*Oryctolagus cuniculus*), erbia (*Lepus europeus*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

Hegazti sedentarioak: Eper gorria (*Alectoris rufa*), faisaiak (*Phasianus colchicus*), arabazoko pikarta (*Sturnus vulgaris*), mika (*Pica pica*), bela beltza (*Corvus corone*) eta haitz usoa (*Columba livia*).

Hegazti migratzaileak: Pagausoa (*Columba palumbus*), txoloma (*Columba oenas*), usapala (*Streptopelia turtur*), birigarro txikia (*Turdus iliacus*), garratarroa (*Turdus viscivorus*), birigarro arrunta (*Turdus philomelus*), durdula (*Turdus pilaris*), galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), hegabera (*Vanellus vanellus*), oilagorra (*Scolopax rusticola*), istingor txikia (*Lymnocyptes minimus*) eta istingor arrunta (*Gallinago gallinago*).

Uso migratzaile eta birigarroei dagokienez: bakarrik ehizatu ahal izango dira behar bezala baimendutako usoetarako tiro postuetatik, foru agindu honen II. eranskinean xedatutakoaren arabera, (urriaren 12a baino lehen)

Oilagorrari dagokionez (*Scolopax rusticola*), debekatuta dago espezie hori itxaronda harrapatzea baimendutako aldi guztian.

Esparru batzuetan oilagorretarako zona bat baimenduta badago, hura ezin izango da izan esparruaren azalera osoaren ehuneko 25 baino handiagoa, eta egunean ehiztari bat 100 ha bakoitzeko egon ahalko da gehienez ere.

Berritze aldian dauden esparruetan, oilagorretarako balizko zona hori ehiza antolamenduaren kasuan kasuko plan teknikoan sartu behar da.

Uretako hegaztiak: basahatea (*Anas platyrhynchos*), ahate txistularia (*Anas penelope*), Ipar ahatea (*Anas strepera*), ahate buztanluzea (*Anas acuta*), antzara hankagorritza (*Anser anser*), udako zertzeta (*Anas querquedula*), zertzeta arrunta (*Anas crecca*), ahate mokozabala (*Anas clypeata*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*), murgilari arrunta (*Aythya ferina*) eta murgilari mottoduna (*Aythya fuligula*).

4.- Kupoak.- Kupo hauek finkatzen dira espezie hauetarako:



Eper gorria (*Alectoris rufa*), hiru ale pertsona eta egun bakoitzeko

Oilagorra (*Scolopax rusticola*), hiru ale pertsona eta egun bakoitzeko

5.- Ehiza xehearen modalitateak.

Saltoan: bakarka egiten den ehiza —ez taldean—, zeinetan ehiztariak, modu aktiboan, oinez eta baimendutako ehiza baliabideez hornituta, txakurren laguntzarekin edo gabe, ehiza xeheko animaliak bilatu, jarraitu eta haiengana hurbiltzen den, harrapatzeko helburuarekin.

Eskuan: gehienez ere hiru pertsonak egiten duten ehiza, zeinetan baimendutako ehiza baliabideez hornituta, txakurren laguntzarekin edo gabe eta oinez, ehiza xeheko animaliak era koordinatuan bilatu eta jarraitzen dituzten, harrapatzeko helburuarekin.

Zelatan edo itxaroten: pertsona batek edo gehiagok egiten duten ehiza, zeinetan ehiztariak, baimendutako ehiza baliabideez hornituta, tiro postu finkoetan zain egoten diren ehiza xeheko animaliak eskura izan arte, harrapatzeko helburuarekin. Modalitate horren barruan daude usoak eta birigarroak ehizatzea neguko migrazioan eta uretako hegaztiak harrapatzea tiro postu finkoetatik.

Untxiak hudoz: pertsona batek edo gehiagok egiten duten ehiza, zeinetan ehiztariak, hudoen bidez, untxiak gordelekuetatik irtenarazten dituzten, harrapatzeko helburuarekin. Modalitate horretan, aldi berean erabil daitezke baimendutako beste ehiza baliabide batzuk ere.

Azeriak zulo txakurrekin: pertsona batek edo gehiagok egiten duten ehiza, zeinetan ehiztariak, zulo txakurren bidez, azeriak gordelekuetatik irtenarazten dituzten, harrapatzeko helburuarekin. Modalitate horretan, aldi berean erabil daitezke baimendutako beste ehiza baliabide batzuk ere.

### **C) - Ehiza larria:**

1. Baimendutako aldia: Urtero finkatuko dira.

2.- Orduetgia: Ehizatzeke orduegia foru arau honen III. eranskinetik VI.era bitartean, espezie bakoitzari aplikatzeko, ezartzen diren arau espeziikoetan finkatuko da.

3.- Harrapatu daitezkeen espezieak: Ehiza larriko espezieak dira basurdea (*Sus scrofa*), oreina (*Cervus elaphus*) eta arkatza (*Capreolus capreolus*). Horiek harrapatzeke baldintzak foru arau honen III. eranskinetik V.era bitartean finkatzen dira.

4.- Baimendutako esparruak: Oro har, espezie horiek ehizatzeke baimendutako esparruak denak izango dira ehiza larrikoak eta, oreina ehizatzeke, aurrekoaz gain, foru agindu honen IV. eranskinetik 1. idatz zatian jasotako esparru eremuetakoren batean kokatuta egon beharko dute.



Aurrekoa gorabehera, harrapakin kupoak eman ahalko zaizkie esparruei, baldin eta espezie horien kudeaketarekin arazoak badaude, behar bezala egiaztatuta.

5.- Kupoak.- Arabako Foru Aldundian ehiza arloan eskumenak dituen sailak onartutako ehizako jarraipen planetan zehaztutakoak izango dira ehizagai kupoak.

6.- Munizioa.

Oro har, baimendutako munizio bakarra bala izango da.

Badago arkuz ehizatze aukera, itxarote eta zelata modalitateetan. Horrela egitekotan, arkudun ehiztariak, gainera, ehiza modalitate horretan aritzeko gaitzen duen titulazio egokia eduki beharko dute, urriaren 27ko 155/1999 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat etorriz.

7.- Ehiza larriaren modalitateak.

Uxaldia: taldeko ehiza, gutxienez hamar txakur eta sei uxatzailerekin egiten dena, lurzati jakin batean dauden ehiza larriko animaliak altxarazi eta aurretik tiro postu finko jakinetan jarri diren ehiztarienganantz joatera behartzen dituena. Gutxienez hamabi ehiztari eta gehienez berrogeita bost izaten dira, eta baimendutako baliabideez hornituta egoten dira.

Bakarkako zelata ehiza: pertsona bakarrak egiten duen ehiza —ez taldean—, zeinetan ehiztariak, modu aktiboan, oinez eta baimendutako ehiza baliabideez hornituta, ehiza larriko animaliak bilatu, jarraitu eta haiengana hurbiltzen den, harrapatze helburuarekin.

Itxarote edo zelata: pertsona bakarrak egiten duen ehiza —ez taldean—, zeinetan ehiztariak, baimendutako ehiza baliabideez hornituta, tiro postu finko batean itxaroten duen ehiza larriko animaliak eskura izan arte, harrapatze helburuarekin.

Saltoan: gehienez hiru ehiztarik eta lau txakurrek egiten duten ehiza, zeinetan lurzati jakin batean ehiza larriko animaliak modu aktiboan bilatu eta jarraitzen dituzten, harrapatze helburuarekin.

### **3. artikulua.- Ehiza larriko uxaldiak arautzen dituen araudia.**

Ehiza larriko uxaldiek ondoko idatz zatietan xedatutakoa bete beharko dute:

3.1 - Taldeetako kideak. Ehiza taldeetako tiro postu eta uxatzaile kopuruak foru arau honen III. eranskinetik VI.era bitartean espezie bakoitzerako finkatutako araudi espezifikotan zehazten dira. Nola ehiztari armatuek hala uxatzaileek txaleko deigarriak eta erraz ikusteko modukoak izan beharko dituzte soinean uxaldiak dirauen denbora guztian, eta uxatzailearekin ibiliko den orok berekin izan beharko du dagokion erkidegoko ehiza baimena.

Uxatzaileetariko bik eskopeta eraman ahalko dute, animalia errematzeko edo txakurrei eraso egitea saihesteko. Ordutegiaren arabera aukera badago, uxaldian bi harrapaldi egin ahal izango dira, eta armak zorrotik atera gabe eraman beharko dira ehiza postuetaraino.





Kuadrilla bakoitzak gutxienez bi koordinatzaile izendatu beharko ditu, eta horien identifikazioa Mendi Zerbitzuari emango zaio uxaldiak noiz egingo diren jakinarazten den momentuan.

3.2 Koordinatzaileen funtzioak: Uxaldiaren koordinatzaileek uxaldiaren antolamendu orokorra egin behar dute. Alegia, ibilgailuen joan-etorria arautu behar du, argibideetarako seinaleak jarri behar ditu, uxatzaileak banatu eta ehiza postuak non kokatu behar diren erabaki behar du, bai eta uxaldia noiz hasi eta bukatuko den zehaztu ere. Uxaldiaren akta izenpetu eta uxaldietako harrapaketen berriak zuzen betetzen direla ere ikuskatu beharko dute, baita modu ulergarrian sinatu ere, I. eranskin honen 3.7 eta 3.8 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3.3.- Uxaldien esleipena: Ehiza eta Arrantza Atalak bai esparruen elkarteei bai elkarteetako kide ez diren esparruei, eta behar izanez gero Kuartangoko ehiza esparru sozialari, denboraldirako espezie bakoitzeko zenbat uxaldi esleitu zaizkien jakinaraziko die, bai eta uxaldiak nola egin xedatzeko arauak ere eta kasuan kasuko zigiluak.

3.4 Uxaldien datak jakinaraztea:

Esparru bakoitzak Ehiza eta Arrantza Atalari eta Natura Ondarearen Zerbitzuari, hala badagokio, jakinaraziko die, gutxienez astebete lehenago, zein egunetan egingo diren uxaldiak, eta zer izen eta NAN zenbaki duten hura koordinatzeaz arduratuko diren pertsonak, titularrek zein ordezkoez, baldin eta ehiza esparruen berariazko konpromisoa badago uxaldiak egiteko lekuak menpe egoteko Mendi Zerbitzuak aurreikusitako kirol probak edo bestelako jarduerak bertatik igarotzen direla jakinarazten dituen enklabeena.

Bestela, gutxienerako epea hilabete izango da, beste erabilera publiko batzuekin harmonizatzeak neurriak finka daitezten, halakorik behar izanez gero.

3.5.- Uxaldia hastea: Uxaldia hasten da txakurrak askatzen diren unean, edo, txakurrik gabeko uxaldi isiletan, uxatzaileak lursaila uxatzen hasten direnean. Beraz, uxaldia ezin izango da bertan behera utzitzat jo une horretatik aurrera, edozein delarik ere uxaldia hasi denetik koordinatzaileek mendiko ehiza postuak kentzea erabakitzen duten arte igarotako denbora tartea.

3.6.- Uxaldiak bertan behera uztea: Eguraldia dela eta uxaldia bertan behera uzten bada, uxaldiaren koordinatzaileek berehala eman beharko diote horren berri beren esparruko basozaintza partikularrari. Gainera, bertan behera utzi den egunaren osteko hurrengo egun baliodunean, esparruko ehiza aprobetxamenduaren esleipendun den pertsonak edo erakundeak Ehiza eta Arrantza Atalari jakinarazi beharko dio, eta uxaldia egiteko beste egun bat proposatuko du, egoki bada.

3.7.- Uxaldiaren akta: uxaldietarako, espezifikoa edo mistoa izan, nahitaez bete beharko da uxaldiari buruzko akta edo agiri bat, ehizaldian izandako gorabeherak jasoko dituen. Agiri hori Mendi Zerbitzura bidali beharko du ehiztariak berak, edo dagokion elkartearen bitartez, erabilitako zigiluen orriarekin batera, uxaldiaren hurrengo hamar egunen barruan, nahiz eta uxaldia egin ez. Uxaldiaren akta edo agiriak egun horretan uxaldiko koordinatzaile lanetan



jardun duen pertsonaren edo pertsonen sinadura irakurgarria izan beharko du, haren edo haien izen-abizenak eta NANA argi adierazita.

Aktaren eremu guztiak bete beharko dira eta baliogabeak izango dira akta irakurtezinak, bete gabeak edo sinadura irakurgarria ez dutenak.

3.8 Uxaldien harrapaketen berria: Basurde, orein eta orkatzen uxaldien harrapaketen berri ematen duten agiriak Ehiza eta Arrantza Atalean aurkeztu beharko dira uxaldia egin eta gehienez ere ondorengo hamar egunetan, dela elkarteen bitartez haiekin elkartutako ehiza esparruetan, dela zuzenean elkartu gabeetan. Agiri horietan uxaldiaren koordinatzailearen irakurtzeko moduko izenpea eta NANA agertu behar dira; koordinatzailea uxaldian bertan egondakoa izan beharko da.

Esleitutako orkatz eme eta arren kupoa agortu ez bada, harrapaketa agiri horiek aurkeztea nahitaezko baldintza izango da uxaldi gehiago egin ahal izateko.

3.9 Uxaldi batean, baimendutako ehizaki kopurua baino baten bat gehiago edo baimendutakoa ez den sexukoren bat hiltzen bada ustekabea, berehala jakinarazi beharko zaio basozaintzari. Animalia hori edo horiek hurrengo ehiza denboraldian esparruari esleituko zaion kupotik kenduko dira.

3.10 Interes bereziko areetan uxaldiak egiten badira Europar Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoentzat, maiatzaren 22ko 229/2015 Foru Aginduan xedatutakoaren arabekoak izango dira, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek hegazti horientzat elkarrekin idatzitako EAeko kudeaketa plan bateratua onesten duen foru aginduan.

3.11 Debekuak: uxaldietan ezingo da petardo, klaxon edo pareko zarata elementurik erabili, ehizatu beharrekoak uxatzeko.

3.12 Harrapakinen zigiluak: harrapatzen diren ale guztiei jarri beharko zaie zigilua.

Ehizatzeko denboraldia hasterakoan eta uxaldiak esleitzeaz batera, Ehiza eta Arrantza Atalak zigiluak emango dizkie ehiza esparruei, dela zuzenean, dela kasuan kasuko esparru elkarteen bitartez; denboraldia bukatutakoan erabili gabeko zigiluak itzuli beharko dituzte.

Zigilua tinko estututa jarriko da plastikozko tira horzdunarekin; hala, ezingo zaio kendu apurtu edo hondatu gabe. Gutxienez, Arabako Lurralde Historikoan zehar garraiatzen den bitartean jarrita izango du zigilua aleak. Zigilu hori gida gisa erabili ahalko da jatorria egiaztatu eta garraioa baimentzeko.

Zigilu bakoitzak ehiza esparru jakin bat izango du esleiturik, eta ezin izango da beste esparru batean erabili. Harrapatutako animalien zigiluen zenbakiak harrapatze partean adierazi beharko dira, eta arrazoi justifikaturik gabe galtzeak ez du beste berri baterako eskubiderik emango.



Uxaldietan, zigilua biltze puntuan jarriko da, betiere esparrua utzi baino lehen; eta oreinen eta orkatzen kasuan, pieza jasotzen den unean.

3.13.- Uxaldiaren seinaleak, harrapaldi kopurua eta armak garraiatzea: Uxaldian, eremura iristeko bide eta sarbideetan informazio kartelak jarri beharko dira nahitaez, ezaugarri hauen arabera:

**Ehiza larriaren uxaldietan nahitaez jarri behar den seinalearen ezaugarriak:**

Neurriak:	50 cm x 35 cm
Materiala:	Aluminioa, altzairu herdoilgaitza, PVC edo antzekoren bat.
Kolorea:	Atzealde zuria, ertz gorriko triangelu bat (3,5 cm-ko lodiera), barruan basurde beltz bat duela.
Testua:	KONTUZ/ATENCIÓN (goiko aldean) UXALDIA/BATIDA (beheko aldean)
Testuaren kolorea:	Beltza
Testuaren lodiera:	5 cm altuera 2 cm zabal

**KONTUZ/ATENCIÓN**



**UXALDIA/BATIDA**



#### **4. artikulua.- Ehiza faunaren babes orokorra**

Oro har, ehiza esparru batean aldi berean saltoan harrapatzen jardun dezake, gehienez ere, pertsona batek 100 hektareako.

#### **5. artikulua.- Baimen bereziak behar dituzten ehiza modalitateak:**

5.1 Arkuzko ehiza urriaren 27ko 155/1999 Foru Arauaren bidez arautzen da. Arkuzko ehizan aritu nahi duten pertsonak aldundian ehiza arloko eskumenak dituen sailaren baimen berezi bat lortu beharko dute aurretik; horretarako, ehiza elkarteek aldian-aldian antolatzen dituzten gaitasun probak gainditu beharko dituzte.

5.2 Baimen berezia behar da untxia hudoz ehizatzeke, eta hura aldundian ehiza arloko eskumenak dituen sailak eman beharko du.

5.3 Ehiza hegaztien bidezko ehiza otsailaren 4ko 55/2013 Foru Aginduaren bidez arautzen da (otsailaren 15eko ALHAO, 20. zk.).

#### **6. artikulua.- Baimendutako baliabideak**

Ehiza espezieak soilik erriflez, eskopetaz, arkuz eta ehiza hegaztien bidez harrapatu ahalko dira.

#### **7. artikulua.- Debekuak.**

Martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, ehizarenak, ezarritako debekuez gain, hauexek ere debekatzen dira:

7.1. Errifleak erabilia ehizatzea oro har ehiza xehea eta debekualdi erdian.

7.2. Eraztun perkusiozko errifleak erabilia ehizatzea.

7.3. Arraza hauetako txakurrak erabilia ehizatzea eta beraien arteko gurutzatzeak: Airedale Akita Inu-a, Terrierra, American Staffordshire Terrierra, Bull Terrierra, Bullmastiffa, Cane korsiarra, dobermana, Dogo alemaniarra, Dogo argentinarra, Bordeleko Dogoa, Dogo tibetarra, Fila brasildarra, Pirinioetako artzakurra, artzakur espainiarra, artzakur napolitarra, Pit Bull Terrierra, artzain txakur alemaniarra, Beauceko artzain txakurra, Kaukasoko artzain txakurra, Harrapari kanariarra, Mallorcako harraparia, Rottweilerra, Staffordshire Bull Terrierra eta Tosa Inu-a.

7.4. Hiru txakurrekin baino gehiagorekin ehizatzea eskopetako ehiza xehean saltoan.

7.5. Gaez tiro egitea ahalbidetzen duten bisoreekin ehizatzea.



7.6 Debekualdian edo baimendutako aldiko egun eta ordu baimendu gabeetan, edozein ehiza lurzorutatik su-armak eramanez igarotzea, baita zorroan badaude ere, horretarako baimena izan ezean.

7.7 Ehiza larriko espezie zinegetikoak ehiza garaian gizentzea, arku ehizaren kasuan izan ezik.

7.8 Erabilitako kartutxo zorroak ehiza esparruan botata uztea. Idatz zati honek jasotakoa betetzen ez bada, ehiza esparruaren elkarte, klub edo pertsona esleipenduna izango da erantzule subsidiarioa betiere.

## **8. artikulua.- Txapelketak**

Arabako Ehiza Federazioaren bitartez egin behar dira ehiza txapelketak baimentzeko eskaerak.

## **9. artikulua.- Prebentzio eta kontrol neurriak, nekazaritzan, abeltzaintzan, mendietan eta basa faunan eragindako kalteengatik:**

Martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, ehizarenak, 34.4 b eta 34.5 artikuluetan eta martxoaren 4ko 82/2016 Foru Aginduak, Arabako Lurralde Historikoan ehiza espezieak kontrolatzeko aparteko neurriak arautzen dituenak, xedatutakoa aplikatuz, lurzoruren batean ehiza espezieek eragindako noiz nolako kalteak agertzen badira, haiek kontrolatzeko prozedurarik egokiena baimendu ahal izango da, eta ohiko ehiza metodoen ordez neurri alternatiboak eta prebentziozkoak bultzatuko dira bereziki.

## **10. artikulua.- Unean uneko neurriak:**

Espezieen iraupenerako batere onuragarriak ez diren gertaera klimatikoak, biologikoak edo bestelakoak direla-eta Arabako edo eskualde bateko ehiza aberastasunak kalterik izan badezake, haiei aurre hartzearen, urgentzia horretarako oztopo ez bada, eta Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, aldundian ehiza arloan eskumenak dituen sailak ehiza espezie horietako batzuk edo horiek guztiak harrapatzeko baimendutako aldiak aldatzeko ahalmena hartu ahal izango du beretzat. Erabaki hori komunikabide nagusietan argitaratuko da eta, ondoren, ALHAOn foru arau bidez eta ahal bezain azkar.

## **11. artikulua. Osasun neurriak:**

Zernahi ehizagai sartu edo ingururen bat birpopulatu aurretik Nekazaritza Sailaren baimena behar da, ekainaren 28ko 48/2011 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera. Foru dekretu horrek Arabako Lurralde Historikoan ehiza espezieak ekoiztea, birpopulatzeta eta askatzea, espezie horiek ehizarako edo erakusteko erabiltzea, eta ehiza eremu industrialen eta animaliak hezteko guneen funtzionamendua arautzen ditu.

Ehiza esparruetan harrapatutako ehiza animalien bitartez parasito gaixotasunak eta gaixotasun infekziosoak transmititzea saihesteko, esparruen adjudikaziodunei eskatzen zaie tripak atera



ondoren sortutako hondakinak Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak lurraldean zehar horretarako baliaututako edukiontzietan uzteko.

## **12. artikulua. Antolaketarako neurriak:**

12.1 Harrapatutakoen parte orokorrak: Ehiza esparru baten erakunde edo pertsona esleipendunak ehiza denboraldian esparruan harrapaturikoaren laburpena aurkeztu beharko du urte bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen Ehiza eta Arrantza Atalean, horretarako emango zaion inprimakian.

12.2 Ehiza jarraipena egiteko urteko planak: Ehiza esparruen ehiza jarraipena egiteko urteko planak Ehiza eta Arrantza Atalean aurkeztu behar dira urte bakoitzeko urriaren 12a baino lehen.

12.3 Esparruko matrikula ordaintzea: Ehiza esparru bakoitzeko matrikularen tasa Arabako Foru Aldundian ordaindu beharko da urte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen.

## **13. artikulua. Ehiza txartelak:**

Esparru bati lotutako pertsonen ehiza txarteletan argi eta garbi jarri beharko dira datu hauek: ehiztariaren izena, bi abizen eta NANA, ehiza esparruaren izena, baimendutako ehiza modalitateak, txartelak zein ehiza denboraldirako balio duen, esparruaren entitate esleipendunaren sinadura ulergarria eta, hala badagokio, zigilua.

## **14. artikulua. Segurtasun eta babes neurriak:**

Pertsonen segurtasuna oro har bermatu ahal izateko, gomendatzen da kolore deigarriko txalekoak erabiltzea ehiza xehean aritzean.

## **15. artikulua. Merkaturatzea:**

Irailaren 15eko 1118/1989 Errege Dekretuak xedatzen duenez, basahatea, oreina, galeper arrunta, untxia, orkatza, faisaia, basurdea, erbia, pagausoa, txoloma, eper gorria eta azeria dira Araban merkaturatu daitezkeen ehiza espezie bakarrak.

## **16. artikulua.- Arau hausteak**

Foru agindu honetako arauak hausten badira, martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, ehizarenak, eta ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ehizarenak, ezarritakoaren arabera ezarriko dira zehapenak.



## II. ERANSKINA

### **ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN USO MIGRATZAILEAK ETA BIRIGARROAK OHIKO PASALEKUETAN EHIZATZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK EZARTZEN DITUEN ARAUDIA**

Foru agindu honen I. eranskinen 2.B.3 artikuluan xedatutakoa garatuz, artikuluko horrek uso migratzaileak eta birigarroak ehizatzeko aipatzen duen araudi espezifikoa ezarri behar da. Horretarako, honako idatz zati hauek zehazten dira:

#### 1.- Baimendutako aldia, ordutegiak eta arau espezifikoak

1.1.- Oro har, uso migratzaileak eta birigarroak behar bezala baimendutako ohiko tiro postuetan ehizatzeko baimendutako aldia da urte bakoitzeko urriko lehen igandetik abenduko lehen igandera, egun biak barne. 1.2.- Arabako Errioxako birigarroetarako tiro postuetan, baimendutako aldia izango da urte bakoitzeko azaro eta abendua eta hurrengo urteko urtarrila, egun baimenduen mugarik gabe.

1.3.- Urtero zehaztuko dira zeintzuk diren baimendutako aldiak.

1.4.- Tiro postuak eta txabolak erabiltzeko eta uso migratzaileak eta birigarroak ehizatzeko ordutegia izango da baimendutako aldiaren egunak argitzen duenetik ilundu baino ordubete lehenago arte, Arabako Errioxako tiro postu finkoetan izan ezik, horietan egunak argitzen duenetik ilundu arte izango baita.

#### 2.- Arau espezifikoak:

Martxoaren 17ko 2/2011 Legearen, ehizari buruzkoaren, 12. eta 41. artikuluetan, eta indarrean dagoen ehizari buruzko erregelamenduaren 17.8 eta 25.7 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, usotarako tiro postuen kokapenak, haien artean gutxienez egon behar den tartekak eta gehiegikeriak saihestuz haiek erabiltzeko eskubideak idatz zati hauetan xedatutako bete beharko dute:

#### **A. Tiro postu eta txaboletarako arau erkideak:**

1.- Arau hauek sortuko dituzten ondorioetarako, ondokoak izango dira ohiko pasalekuak: apirilaren 4ko 1/1970 Legearen, ehizari buruzkoaren, argitaratze eguna (1970eko apirilaren 4a) baino lehenago eraikitako tiro postuak edo txabolak, baldin eta hiru urtez jarraian erabili badira, 15 ehiza egunez behintzat.

2.- 1970eko apirilaren 4az geroztik eraikitako tiro postuek zein txabolek eta etorkizunean eraiki daitezkeenek Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzaren idatzizko berariazko baimena beharko dute ohiko pasaleku izan daitezen. Hasiera batean, behin-behineko baimena izango dute, harik eta jada baimena duten beste batzuei edo hirugarren batzuei kalterik ez dakarkiela egiaztatu arte.



3.- Ehiza esparruetako ohiko pasalekuetan baimentzen diren tiro postu eta txabola bakarrak izango dira ehiza arloko eskumenak dituen sailak finkatzen duen ohiko pasalekuetako usoak eta birigarroak ehizatzeako tiro postuen inbentario ofizialean daudenak. Arabako Foru Aldundiak urtero argitaratuko du bere web orrian ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)), Arabako Lurralde Historikoan uso migratzaileak eta birigarroak ehizatzeako denboraldia hasi baino lehen. Usoak eta birigarroak ehizatzeako, hegan doazela edo pausatuta daudela, ez da baimenduko erabiltzen den beste edozein egitura artifizial.

4.- Tiro postuak dira hegan doazenei tiro egiteko ehiztaria ezkututzen duten instalazio egonkor eta iraunkorrak. Instalazio horiek zurez, metalezko materialez eta beste material egoki batzuek eginak egongo dira.

5.- Ehiztariantzako aterpe iraunkor edo egonkorrari esaten zaio txabola, baldin eta usoari, hura zuhaitzean pausatuta dagoela, tiro egiteko leku proposa bada.

6.- Tiro postua edo txabola egiteak ez dakarkio ez egileari, ez eta lursailaren jabeari ere, inongo ehiza eskubiderik.

7.- Tiro postu eta txabolak eraikitzean ingurumen eragin txikiena sortze aldera, ezingo dira ondoko materialak erabili: zementua, adreiluak, blokeak, baldosak, terrazoak, plastikozko toldoak, behégain plastifikatuak edo antzekoak. Horiek horrela, ondokoak baino ez dira baimenduko: berde mimetizatuko egurrezko edo metalezko aldamiok, landare panelak, lonazko toldoak edo egurrezko egiturak. Halaber, ezingo dira altzairuzko kableak zuzenean erabili zuhaitzen azalean, ez eta torlojuak edo iltzeak ere.

8.- Tiro postu eta txabola berrien egiturak edo aldamiok erraz desmuntatu beharko dira eta ezin izango dira lurrean finkatu zementuzko edo kareorezko zolen bidez edo euskarrien bidez, beharrezkoa bada erraz kentzeko modukoak izan daitezten. Egoera onean zaindu behar dira eta jausi edo hondatuz gero, berriro muntatu edo konpondu beharko dira.

9.- Zuhaitzian tiro postuak edo txabolak eraikitzeo nahiz haiek eraikitzeo landaretza moztu edo inauteko Mendi Zerbitzuaren eta zuhaitziaren erakunde jabearen baimena eduki beharko da.

10.- Aprobetxamenduari buruzko auziren bat ebazteke edo adosteke dagoen eremuetan tiro postuak edo txabolak erakunde edo komunitate bati atxikitzeak ez dakar nahitaz ehiza jabetza izatea.

11.- Tiro postu eta txabola baimendu guztiak UTM geografia koordenatuen bidez (ETRS 89) zehaztutako tokian kokatu beharko dira, eta ehiza arloko eskumenak dituen sailak berariaz ezarritako inbentario ofizialean jasota egon. Halaber, behar bezala seinalatu eta zenbakituko dira lurraren gainean, eranskin honen F idatz zatian finkatutako araudiaren arabera.

12.- Ehiza esparruetako tiro postuak zein txabolak ehiza esparru horren administratziarako ezarritako arauak betez erabiliko dira.





13.- Legez baimendutako tiro postuetako eta txaboletako ehiztarien baimenik gabe, ezin izango da aritu tiro postutik 500 metro barruan dauden esparru mugakideetan uso migratzaileak eta birigarroak harrapatzen. Debeku hori 2015-2016 ehiza denboraldi arteko (2015-2016 barne) tiro postu eta txaboletarako baino ez da.

14.- Debekatuta dago usoak erakarri, uxatu edo norabidea oztopatzea helburu duen beste ezein egintzaz baliatzea, hala nola seinaleak, tiroak, txupinak edo haien ohiko ibilbidea aldarazteko asmatu-rikiko beste edozein jardunez, salbu eta txaboletan abatak erabiltzea.

15.- Debekatuta dago ehiza ibiltaria eta eskopetak zorrotik aterata tiro postu edo txaboletatik kanpo ibiltzea, salbu eta botatako ehizakiak jasotzera irteten denean; halakoetan, hutsik eramango da arma.

16.- Debekaturik dago erabilitako kartutxoak basoan uztea; horregatik, neurriak ezarriko dira erabiltzen diren egunean bertan bil daitezten. Halaber, ezin izango da ezelango zaborrik ez hondakinik utzi, ez tiro postuetan, ez txaboletan.

17.- Ehiza esparrua esleitu zaion erakundearena izango da erantzukizun zuzena (udala, administrazio batzarra, ehiztari elkarteak, ehiza kluba, norbanakoa eta abar), ehiza esparruan ehizarako egitura baimen gabeak egonez gero (pantailak, aldamiok, tiro postuak eta txabolak, eta abar), edo postuen seinaleztapena arauz kontra eginez gero, edo seinaleztatzerik ipini ezean, edo ehiza esparruko postuetan eta txaboletan kartutxoak, zaborra, hondarrak eta material baimendu gabea egonez gero (metalak, plastikok edo egurra, eta abar), edo ehiza esparruaren inguruko landaretzari era batera edo bestera eragiten bazaio (moztea edo inautzea) hartarako baimenik eduki gabe.

## **B. Hegan doazen uso migratzaileak eta birigarroak tiro postuetatik harrapatzeko arauak:**

1.- “Hegan doazenak” harrapatzea da eduki beharreko baimena duten tiro postuetatik egiten den ehiza jarduera. Erabat debekatuta dago “pausatuta daudela” tiro egitea, hegan doazela tiro egiteko baimendutako tiro postu batetik.

2.- Itxaron lerro bereko tiro postuak 30 metrotik 30 metrora egongo dira gutxienez. Horrez gain, baldin eta tarte hori 50 metro baino gutxiagokoa bada, indarrean den Ehiza Legearen Arautegiaren 53.6 artikuluan eskatzen den babes pantailekin horniturik egon beharko dute tiro postuek.

3.- Inbentario ofizialean zerrendatutako tiro postu eta txaboletan izan ezik, ehiza esparru bakoitzerako zehaztutako egun baimenduetan baino ezin izango dira “saltoan” eta “hegan doazela” harrapatu. Nolanahi ere, hegan doazela harrapatuz gero, babes edo karel natural baten petik egin beharko da, izan ere, ehiztariak hegan doazenei tiro egiteko ezkutatzeko erabiltzen dituen egitura artifizialak, iraunkorrak edo aldi baterakoak berariaz egongo dira debekatuta, material naturalekin eginda egon arren.



4.- Lehenengo lerroaren aurretik ez da tiro posturik egongo 500 metroan. Atzekoetan batetik bestera, gutxienez, 120 metro izango dira.

5.- Tiro postu baimendu berriei dagokienez, haien eta bide publikoen artean, 50 metro egongo dira behintzat, baldin eta ohiko tiro norabidea bide publiko horretarantz bada. Dagoeneko badiren usotarako etxolak direla eta, kontuan izanik horietatik egiten den ehiza berezia, ezin izango da besterik eraiki haietatik 1.000 metro barruan, hegan doazenei tiro egiteko.

6.- Pasalekuari perpendikular ehiza mugarik badago, tiro postuak mugatik 50 metrora egongo dira, ehiza lurren jabeek besterik adostu ezean.

7.- Elkarren ondoan dauden tiro postu berri biren artean pasalekuari paralelo ehiza mugarik badago, tiro postuak, gutxienez, mugatik 100 metrora egongo dira, ehiza lurren jabeek besterik adostu ezean. Lerro berean egon eta elkarte, klub eta pertsona esleipendun biri dagozkien tiro postuen artean ere ehun metro egongo dira.

8.- Tiro postuetan, gehienez, bi ehiztari egongo dira, eta hori akordiorik badago. Era beran, ehiztariko, gehienez, eskopeta bat erabili ahal izango da.

9.- Bi tiro posturen artean interferentziarik egonez gero, antzintasun handiena duenak izango du beti lehentasuna. Interferentzia dagoela ulertzen da baldin eta lehentasuna duen tiro postuaren eraginkortasuna murriztuta geratzen bada eta eragindako tiro postuen titularren artean elkarrekin ehizatzeak akordiorik ez badago.

### **C. Uso migratzaileak txabolatik abataz harrapatzeak arauak:**

1.- Tiro postuen inbentario ofizialean zerrendatzen diren txabola baimenduetatik baino ezin izango da abataz ehizatu.

2.- Pausatutakoari baino ezingo zaio tiro egin txabolatik, beraz, ezinbestekoa da abata edukitzea.

3.- Txabolen artean, gutxienez, 300 metro egongo dira. Bi postu edo posizio eduki ahalko du txabola bakoitzak, baina batetik baino ezin izango da ehizan jardun, eta gainera eguneko ehiza baldintzak kontuan hartuta. Txabola bereko bi postuen artean 50 metro baino gutxiago egongo da eta behar bezala seinalatuta egongo dira.

4.- Txabola bakoitzean, gehienez, bi ehiztari egongo dira, eta hori akordiorik badago. Era berean, pertsona bakoitzeko, gehienez, eskopeta bat erabili ahal izango da.

5.- Txabola baimendu berriei dagokienez, haien eta bide publikoen artean, 50 metro egongo dira behintzat, baldin eta ohiko tiro norabidea bide publiko horretarantz bada.

6.- Debekatuta dago abata bizi itsutu edo mutilatuak erabiltzea.



7.- Ahal dela, eragotzi egin beharko da txabolaren egitura osatzen duten hedeek eta gainerakoek arriskua ekartzea pertsonen osotasun fisikoari edo etxeko abereei nahiz basabereei.

#### **D. Arabako Errioxan tiro postu finkoetatik birigarroak harrapatzeko arauak:**

- 1.- Tiro postu finkoetatik birigarroak baino ezin dira harrapatu.
- 2.- Tiro postu baimendu berriei dagokienez, haien eta bide publikoen artean, 50 metro egongo dira behintzat, baldin eta ohiko tiro norabidea bide publiko horretarantz bada.

#### **E. Tiro postu eta txabolei buruzko baimen berriak eta aldaketak:**

1.- Errentamendu aldia bukatuta duten ehiza esparruetako erakunde titularrek (udalak edo administrazio batzarrak) baino ezin izango dituzte eskatu uso eta birigarrotarako beste tiro postu edo txabola batzuk, ehiza esparrua sortu edo eraberritzen duen foru agindua argitaratu baino lehen. Txosten tekniko batek bermatu beharko ditu eskaerak.

2.- Tiro postu edo txabola berriak emateko ondoko irizpideak izango dira kontuan:

Ehiza esparruko ehizaren antolamendu plan teknikoa.

Ehiza esparruko edo esparru hori osatzen duten lurretako (esparrua berria bada) ehiza jardunaren historiala, aurreko urteetan harrapatutako usoei eta birigarroei buruzkoa.

Esparru horretako edo esparru hori osatzen duten lurretako (esparrua berria bada) ehizaren jarraipen plana eta harrapaketen berriak, aurreko denboraldietakoak.

Geografia eta ehiza ezaugarri berdinak dituzten esparru mugakideetan dauden tiro postu eta txabola kopurua.

3.- Tiro postuaren egitura edo tiro postua edo txabola lekuz aldatzeko, Mendi Zerbitzuaren baimena beharko da. Aldaketa esaten zaio tiro postua gorago eramateari, lekuz aldatzeari, sastrakak eta zuhaiztiak garbitzeari...

4.- Ehiza esparruen elkarte, klub edo pertsona esleipendunek beren esparruko tiro postuetan eta txaboletan aldaketak egiteko baimena eskatu ahal izango dute. Aldaketa horiek izango dira bajak konpentsatutako altak, kokapen berriak eta goratzeak. Esparruko ehizaren jarraipen plana idatzi duen teknikariak egindako txosten baten babesa izan beharko dute eskaera horiek, baita titularren oniritzia ere. Bost urtean behin baino ezingo dira egin eskaera horiek, Mendi Zerbitzuak baimendutako aldaketa egin zenetik, salbu eta justifikaturiko arrazoiren bat bada tarteko.

5.- Ehiza esparruetan errentan emandako tiro postuetan, beste ehiza mota batzuk egin arren, ehiza lurren jabe diren erakundeek baino ezin izango dute beren esparruko tiro postu eta txaboletan aldaketak egiteko baimena eskatu. Tiro postuen esleipen urtean edo Mendi Zerbitzuak azken aldaketa baimendu zuenetik bost urte igarotakoan baino ezin izango dira egin eskaerak, betiere esleitu aurretik eta arauzko epeen barruan.



6.- Esparru bateko tiro postuak edo txabolak aldatzeko eskaera, aurreko 4. idatz zatian aipatzen dena, bakar-bakarrik egingo da urte bakoitzeko otsailaren 1etik eta maiatzaren 31ra bitarteko aldiaren barruan, bi egun horiek barne.

7.- Maiatzaren 31tik aurrera berritu edo eratuko diren esparruen elkarte, klub edo pertsona esleipendunek ekainean eta uztailean eskatu ahal izango dituzte baimenak. Edonola ere, abuztutik aurrera jasotako eskaerak hurrengo ehiza denboraldian izapidetuko dira, ez baita oztopatu nahi irailean argitaratuko den ohiko pasalekuetako tiro postuen inbentario ofiziala egitea.

8.- Ez da beste tiro postu edo txabolarik baimenduko, behar bezala arrazoitutako salbuespenik dagoenean izan ezik, erabiltzen ez diren edo gutxi erabiltzen diren beste batzuen bajarekin konpentsatu ezean. Neurri hori tiro postu eta txabolak ez ugaritzeko hartuko da, ez baita justifikatzen ez teknikoki ez ehizaren ikuspuntutik. Ez da inola ere salbuespen izango ehiztariak esparru batean ugaritu izanagatik tiro postu gehiago eskatzea.

9.- Oro har, 700 metrotik behera ez da tiro postu berririk (hegan doazenei tiro egiteko) egiterik onartuko, salbu eta ehiza lurrok kota horretatik gora lurrik ez badute edo, izatekotan, baldintza teknikoak edo ehizazkoak behar bezala betetzen ez badituzte baimena emateko.

10.- Baimenak urte birako emango dira, beste pertsona batzuei kalterik edo enbarazurik egiten ez zaiela egiaztatzeko.

#### **F.- Seinalizazioa:**

1.- Arabako Lurralde Historikoko tiro postu eta txabola guztietako seinaleak behar bezala berdintzeko, arautu egingo dira honako baldintzen arabera:

a).- Legez baimendutako tiro postu eta txabola guztiek identifikazio plaka bana jarri beharko dute, ondoko ezaugarri hauekin: kolore zuria, esparruei buruzko bigarren aginduaren antzekoa, eta hiru lerroko testu beltza, zeinak ondoko hau jakinaraziko baitu:

Ehiza esparruaren matrikula

Lerroaren izena

Tiro postuaren edo txabolaren zenbakia

b).- Seinale horiek postu eta txaboletan jarri beharko dira eta han egongo dira usoak eta birigarroak harrapatzea baimenduta dagoen epe osoan zehar.

2.- Usotarako tiro postu inguruetakoko baso bide eta pistetan, ehiza esparruetako edo postu lerroetako elkarte, klub eta pertsona esleipendunek usotarako tiro postuak daudela jakinarazten duten seinaleak jarriko dituzte nahitaez, ehiztarien eta beste erabiltzaile batzuen artean arazorik sor ez dadin. Ondoren azaltzen den ereduaren arabera egingo dira seinale horiek:

**Usotarako tiro postuetatik hurbil dauden baso bide eta pistetako seinaleen ezaugarriak**



Neurriak:	50 cm x 35 cm.
Materiala:	plastikoa, altzairua edo aluminioa.
Kolorea:	hondo zuriaren gainean gorriz marraztutako hirukia (5 zentimetro lodi), hiruki barruan ehiztaria beltz pintatua.
Testua:	Goian: Kontuz / Atención. Behean: Uso postuak / Puestos palomeros.
Testuaren kolorea:	beltza.
Testuaren lodiera:	6 cm altu eta 5 cm zabal.



### III. ERANSKINA

#### **BASURDEA (*SUS SCROFA*) EHIZATZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK FINKATZEN DITUEN ARAUDIA**

Foru agindu honen I. eranskineko 2.C.3 artikuluan xedatutakoa garatuz, artikuluko horrek basurdea (*Sus scrofa*) ehizatzeke aipatzen duen araudi espezifikoa ezarri behar da. Horretarako, honako idatz zati hauek zehazten dira:

##### 1.- Baimendutako aldiak

Urtero finkatuko dira baimendutako aldiak.

##### 2.- Baimendutako egunak eta ordutegiak

Basurdeak uxaldian ehizatzeke baimendutako egunak ostegunak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak izango dira, 08:30etik 16:30era.

##### 3.- Tiro egiteko arauak

Ezin izango zaio tiro egin taldeko lehenengo animalari edo gidariari, zeina eme heldua izan ohi baita, ez eta basurdekumeak dituzten emeei ere.

##### 4.- Ehiza modalitateak

Basurdeak soilik uxaldian harrapatu ahalko dira, zelatan arkua erabilia, itxaronda eta saltoan.

##### 4.1.- Ehiza saltoan

Saltoan, eskopetarekin baino ez eta balaz, gehienez ere lau txakurrekin eta hiru ehiztarirekin txaleko deigarriak eta erraz ikustekoak soinean jarrita, harrapatu ahalko dute hala egin nahi duten esparruek, betiere bakoitzak ehizako bere jarraipen planean hala adierazita.

##### 4.2.- Ehiza Itxaronda.

Itxarondako ehiza gauzatzea nahi duten ehiza-esparruek, egoera hau beraien ehiza jarraipenerako planean adierazi beharko dute.

##### 4.3.- Ehiza uxaldian

Ehiza taldeetako postu kopurua hamabi eta berrogeita hamar artekoa izango da. Gutxienez, hamar txakur izan beharko dituzte, behar bezala identifikatuta, eta ez da mugarik ezartzen, ez behetik eta ez goitik, uxatzaile kopuruarentzat.

##### 5.- Harrapatutakoa zigilatzea



Uxaldi, gauez itxaroten, saltoan edo zelatan arku erabiltzeko modalitateetan harrapatutako basurde guztiak zigilatu egin beharko dira, I. eranskinaren 3.12 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gauez itxaroten, saltoan edo arkuarekin zelatan ehizatuz gero, pieza hartzen den momentuan jarriko da zigilua.



## IV. ERANSKINA

### **OREINA (*CERVUS ELAPHUS*) EHIZATZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK FINKATZEN DITUEN ARAUDIA**

Foru agindu honen I. eranskineko 2.C.3 artikuluan xedatutakoa garatuz, eta kontuan hartuta Gorbeia parke naturalean oreinak (*Cervus elaphus*) antolatu, jarraitu, kontrolatu eta kudeatzeko plana, artikuluko horrek oreina ehizatzeko aipatzen duen araudi espezifikoa ezarri behar da. Horretarako, honako idatz zati hauek zehazten dira:

#### 1. Eremua.

Arabako Lurralde Historikoan, honako ehiza esparru taldeetan egon ohi da espezie hori eta honako gune hauek zehazten dira oreinen kudeaketarako zona: Gorbeia zona, labore lur landuen zona, Arrato zona, Badaia zona eta mendebaldeko zona.

Gorbeia zonaren barruan, oreina kudeatzeko unitate bat zehazten da. Hona hemen mugak (azpiegiturak): Bizkaiarekiko probintzia mugatik, AP-68 autobidetik, N-622 autobidearekiko elkargunera arte, N-622 autobidetik Murgiaraino eta aurrerago A-3610 errepidetik Gopegiraino Zarate eta Manurgan zehar; Gopetigik, A-3608 errepidean zehar N-240 errepidearekiko bidegurutzeraino Muruan eta Etxaguenen zehar; N-240 errepidetik iparralderantz Bizkaiarekiko probintzia mugaraino.

#### 2.- Baimendutako aldia.

Oro har, ehizarako baimendutako aldia urteko bateko urriaren 12tik hurrengo urteko otsailera arte izango da, biak barne.

Urtero zehaztuko dira zeintzuk diren baimendutako aldiak.

#### 3.- Tiro egiteko arauak

Debekatuta dago zona orotan urteko kumeekin doazen emeak harrapatzea. Era berean, ezin izango zaio tiro egin eme gidariari, hau da, ihesaldian buru den eta taldea zuzentzen duen emeari.

Arrei dagokienez, ehiza esparru bakoitzari kupoa jakinaraztean adierazten zaizkion tiro irizpideak aplikatuko dira.

#### 4. Kupoak eta aleak.

4.1.- Ehiza eta Arrantza Atalak jakinaraziko die Kuartangoko elkarteei eta udalari zein den artikuluko kupoa aurreko 1. idatz zatian aipatutako zonetako ehiza larriaren esparru guztietarako, bai eta eme kupoa ere Gorbeia zonan oreina kudeatzeko unitatean.





4.2.- Lur landuen zonan, Arrato zonan, Badaia zonan eta mendebaldeko zonan, bai eta oreina kudeatzeko unitatetik kanpo dauden Gorbeia zonako ehiza esparruetako lurretan ere, emeei tiro egin ahal izango zaie, kuporik gabe.

## 5.- Ehiza modalitateak

Oro har, oreinak arrak nahiz emeak direla, ehiza mota hauek baimentzen dira: uxaldian, tiro postu finko garai batean nahiz lurraren arrasean itxaroten, eta zelatan.

### 5.1- Ehiza uxaldian: baimendutako egunak eta ordutegia

5.1.1.- Espeziea ehizatzeko baimendutako aldiko ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak izango dira uxaldian ehizatzeko egun baimenduak. 8:30etik 16:30era jardun ahal izango da ehizan.

Gomendatzen da uxaldiak isilak izan daitezzen (txakurrik gabe) edo txakur txikiak erabiltzea. Uxaldiak 15 hektarea baino gutxiagoko eremuetan egingo dira. Eremu horretan, kupoa bete arte, nahi beste harrapaldi egin ahal izango dira.

5.1.2.- Uxaldiak mistoak izan daitezke (orkatzetarako, basurdetako edo horietako bietako baimendutako ehizaldiekin batera egiten badira), edo espezifikoak oreinak ehizatzekoak (harrapatzeko espezie bakarra oreina bada).

5.1.3.- Uxaldi misto bidez ehizatzea aukeratuz gero, Mendi Zerbitzuari horien berri emateko orduan, oreinak harrapatuko diren basurde edo orkatz uxaldi baimenduen datak edo uxaldi espezifikoen datak adierazi beharko dira.

5.1.4.- Uxaldi espezifikoak: ezingo dira egin ehiza esparruan orkatz edo basurde uxaldiak baimenduta dauden egunetan. Uxaldi hauetarako kuadrilak gutxienez 6 eta gehienez 10 txakurrez osatuta egongo dira, eta gomendatzen dena da uxaldiak ixilak izatea (txakurrik gabe) edo tamaina txikiko txakurrak erabilia. Uxaldi hauek 15 ha-tik beherako eremuetan emango dira, eta kasuan kasu, kupora iritxi arteko gantxo kopurua eman ahalko da.

5.1.5.- Uxaldi mistoak egiteko, foru agindu honen II. eranskinean basurdeak uxaldian ehizatzeko xedatutakoa bete beharko da; uxaldi espezifikoak egiteko, berriz, foru agindu honen I. eranskinaren 3. artikuluan ehiza larriaren uxaldien araudi orokorrerako xedatutakoa bete beharko da. Uxaldi mistoetako jarduna Foru Agindu honen II. Eranskinean basurdearen ehizarako adierazitakora mugatuko da.

### **5.2.- Zelatan eta itxaronez edo zain egonez ehizatzea.**

#### 5.2.1.- Baimendutako egunak eta ordutegiak.

Zelatan eta itxaronez edo zain egonez ehizatzeko egun baimenduak izango dira espeziea ehizatzeko baimendutako aldiko ostiral, larunbat, igande eta jaiegunak.



5.2.2.- Ehiza ordutegia izango da:

Oro har, egunak argitzen duenetik ilundu arte.

Parke naturalen barruan dauden ehiza lursailetan, ordutegia izango da egunsentitik 11:00ak arte eta 17:00etatik ilundu arte.

5.2.3.- Ezin izango da zelatarik egin uxaldia egiten ari diren lekutik 500 metro baino gutxiagora.

5.2.4.- Baimenen titularrak. Kasuan kasuko ehiza baimenak kuporako eskubidea duen esparru bakoitzak esleituko ditu, honako hauek indarrean dituzten ehiztarien artean: Araban ehizan aritzeko behar diren agiri guztiak eta, horiez gainera, ehiza esparruko bazkide txartela edo aprobetxamenduaren esleipendun den pertsona edo erakundearen baimen espres idatzia, zeinean ehiztariaren identifikazio datuak eta ehizan egiteko baimendutako egunak jaso behar diren. Agiri horiek eta kasuan kasuko zigilu zenbakiduna ehizaldi osoan aldean eraman behar dira.

Kuartangoko ehiza esparru sozialean, Kuartangoko Udalak esleituko ditu oreinak zelatan harrapatzeko baimenak.

5.2.5.- Gomendagarria da ehiztariarekin uneoro ehiza esparruak izendatutako pertsona bat, gidariaren eginkizunak beteko dituen, joatea. Alde horretatik, pertsonen segurtasuna oro har bermatu ahal izateko, gomendatzen da kolore deigarriko txalekoak erabiltzea zelatan aritzean, bai ehiztariak bai laguntzaileak, halakorik badago.

5.2.6.- Zelatan egiten den bitartean oreinen bat zauritzen bada, ezin izango zaio beste bati tiro egin. Gainera, ehiztaria behartuta egongo da zauritua bilatu eta hiltzera. Zelatan diharduen pertsona bakoitzeko odol arrastoko txakur bat erabil daiteke, baina arrastoei jarraitzeko eta zauritutako animaliak ehizatzeke baino ez. Zauritutako oreina aurkitzen ez bada ere, finkatutako kupotik deskontatuko da.

6. Zigilatzea eta jakinaraztea.

6.1.- Zelata eta itxarote eretan, ehiztariak zigilua berekin eraman beharko dute ehizak irauten duen denbora guztian, eta nahitaezkoa izango da aurreko 5.2.4 idatz zatian adierazitako ehizatzeke baimenean zigiluaren zenbakia agertzea.

6.2.- Ehizatutako orain guztiei (ar zein eme) zigilua jarri beharko zaie, berdin dio zein ehiza modalitatetan harrapatu diren, I. eranskinaren 3.12 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Itxaroten eta zelatan ehizatuz gero, pieza hartzen den momentuan jarriko da zigilua.

6.3.- Zigilua adajean jarriko zaio animalari, adarrak hazita badauzka; eta atzeko hanketako batean, emea bada edo hazitako adarrak ez badu, plastikozko horzdun banda baten bidez sendo lotuta egoteko moduan, eta gidatzat balioko du haren jatorria ziurtatzeko eta garraioa baimenduta dagoela egiaztatzeke.



6.4.- Zigilua animalari ipinita eduki beharko da harik eta Arabako Foru Aldundiko langileek edo erakunde horrek ardura emandakoek harrapaketen ikuskatzea egin arte. Ikuskatzea egiteko ardura duten langileek baimen espresua eman ezean, harrapatutako animalien buruak ezin izango dira gorputzetatik banandu ikuskatze hori gauzatu arte.

6.5.- Denboraldiaren amaieran, bukatu eta gehenez ere 20 eguneko epean, ehiza esparru guztiek bidali beharko dizkiote Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari erabili ez dituzten zigiluak.

6.6.- Ehiza esparruen elkarteek, elkarte horietako kide ez diren esparruek eta Kuartangoko ehiza esparru sozialak izango dute ehiztariei zigiluak banatzeko ardura.

6.7.- Agintariak zehaztutako eran emango zaio Ehiza eta Arrantza Atalari modalitate guztietan harrapatutako oreinen berri. Harrapatutako kopurua eta haien mota jakinaraziko da, bai eta non ikuskatu daitezkeen eta harremanetarako pertsonaren izena eta telefono zenbakia ere. Pertsona horrek lagunduko dio Arabako Foru Aldundiko langileari edo hark izendatutakoari harrapatutako oreinak dauden lekura.

#### 7. Harrapaketak ikuskatzea.

Harrapatutako animalien ikuskatzeak, harrapaketaren hurrengo lanegunean egingo dira, 13:00ak baino lehen.

#### 8. Aldaketa.

Kanpainaren emaitzak ikusirik, baimendutako ehiza kupoen eta egindako harrapaketen artean alde handia egonez gero, Nekazaritza Sailak aplikatu daitezkeen formula teknikoak aztertuko ditu desoreka hori eta bere ondorio kaltegarriak zuzentzeko.



## V. ERANSKINA

### **ORKATZA (*Capreolus capreolus*) EHIZATZEKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK FINKATZEN DITUEN ARAUDIA**

Foru agindu honen I. eranskineko 2.C.3 artikuluan xedatutakoa garatuz, artikuluko horrek orkatza ehizatzeke aipatzen duen araudia ezarri behar da. Horretarako, honako idatz zati hauek zehazten dira:

#### 1. Baimendutako aldiak

Hauexek dira orkatza ehizatzeke baimendutako aldiak:

1.1.- Arren udaberriko zelataldiak: apirila, maiatza eta ekaina.

1.2.- Ar eta emeen udazkeneko zelataldiak: urria.

1.3.- Emeen neguko zelataldiak: urtarrila eta otsaila.

1.4.- Ar eta emeen udazkeneko uxaldiak: urria.

1.5.- Emeen neguko uxaldiak: urtarrila eta otsaila.

Urtero zehaztuko dira zeintzuk diren egun baimenduak.

#### 2. Baimendutako egunak eta ordutegiak.

2.1 Espeziea ehizatzeke baimendutako aldietako ostiral, larunbat, igande eta jaiegunak izango dira orkatza ehizatzeke egun baimenduak. Uxaldien kasuan, horiek ostegunetan ere eman ahalko dira.

2.2 Ehizatzeke ordutegia izango da, oro har, egunak argitzen duenetik ilundu arte eta, uxaldientzat, goizeko 8:30etatik 16:30ak arte.

2.3 Arabako parke naturaletan sartuta dauden ehiza lurretan zelatan ehizatzeke ordutegia izango da egunsentitik 11:00etara arte eta 18:00etatik iluntzera arte udaberriko zelataldietan; eta egunsentitik 11:00etara arte eta 17:00etatik iluntzera arte, udazkeneko eta neguko zelataldietan.

#### 3. Ehizakiak

Edozein adinetako orkatz arrak zein emeak ehizatuko dira.

#### 4. Orkatza edozein modalitatetan ehizatzeke baimenen banaketa



4.1.- Behin emeak ehizatzeko aurreko denboraldiko neguko ehizaldia bukatuta, Ehiza eta Arrantza Atalak Araban dauden ehiza esparruen elkarteei, elkarte horien kide ez diren esparru eskatzaileei eta Kuartangoko Udalarari jakinaraziko die zein ar eta eme kopuru dagokien hurrengo denboraldirako, eta nahitaezkoa izango da aurreko denboraldian esparru bakoitzean egindako harrapaketak jakinaraztea, kupoa esleitu ahal izateko.

4.2.- Elkarteetako kide ez diren ehiza esparruek eta Kuartangoko Ehiza Esparru Sozialak emandako kupoei dagozkien zigilu zenbakidunak jasoko dituzte, banan-banan, Ehiza eta Arrantza Ataleko bulegoetan.

4.3.- Ehiza esparruen elkarteek euren esparruei esleitutako zigilu guztiak jasoko dituzte esparru horien artean banatzeko. Era berean, Ehiza eta Arrantza Atalari jakinaraziko diote esleitutako kuporen arabera esparru bakoitzari eman zaizkion zigilu zenbakidunen zerrenda.

4.4.- Ehiza esparruen elkarteek, elkarte horietako kide ez diren esparruek eta Kuartangoko Ehiza Esparru Sozialak ehiztariei zigiluak banatzeko ardura izango dute, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari emaitzak jakinarazteko ere. Ildo horretatik, ehiza denboraldi bakoitza bukatu ondorengo 10 egunetan gehienez ere, erabilitako zigiluen gordekinak bidaliko dituzte, horien fitxa biometrikoekin batera, ezarritako ereduari jarraituta. Baimenak erabili dituzten ehiztarien sinadura irakurgarria izan behar dute fitxa biometriko horiek.

4.5.- Era berean, denboraldiko orkatz ehizaren laburpen fitxa eta erabili gabeko zigiluak bidali beharko dituzte denboraldia amaitu eta gehienez 10 eguneko epean, horretarako ezarritako eredia baliatuta.

## 5. Ehiza modalitateak

Baimendutako ehiza modalitateak zelata eta uxaldia izango dira, bai orkatz arrak bai emeak harrapatzeko.

## 6. Orkatza zelatan ehizatzeko araudi espezifiko osagarria

6.1.- Ezin izango da zelatarik egin uxaldia egiten ari diren lekutik 500 metro baino gutxiagora.

6.2.- Baimenen titularrak.

Kasuan kasuko ehiza baimenak kuporako eskubidea duen esparru bakoitzak esleituko ditu, honako hauek indarrean dituzten ehiztarien artean: Araban ehizan aritzeko behar diren agiri guztiak eta, horiez gainera, ehiza esparruko bazkide txartela, zelatan ehizatzeko baimena duela zehazten duena, edo aprobeitxamenduaren esleipena duen erakunde edo pertsonaren baimen pertsonala eta eskualdaezina, zeinean ehiztariaren identifikazio datuak eta ehizan egiteko baimendutako egunak jaso behar diren. Agiri horiek eta kasuan kasuko zigilu zenbakiduna ehizaldi osoan aldean eraman behar dira.

Kuartangoko Ehiza Esparru Sozialean, Kuartangoko Udalak esleituko ditu orkatzak zelatan ehizatzeko baimenak.



6.3.- Gomendagarria da ehiztariarekin uneoro ehiza esparruak izendatutako pertsona bat, gidariaren eginkizunak beteko dituen, joatea. Alde horretatik, pertsonen segurtasuna oro har bermatu ahal izateko, gomendatzen da kolore deigarriko txalekoak erabiltzea zelatan aritzean, bai ehiztariak bai laguntzaileak, halakorik badago.

6.4.- Zelatan egiten den bitartean orkatzen bat zauritzen bada, ezin izango zaio beste bati tiro egin. Gainera, ehiztaria behartuta egongo da zauritua bilatu eta hiltzera. Zelatan diharduen pertsona bakoitzeko odol arrastoko txakur bat erabil daiteke, baina arrastoei jarraitzeko eta zauritutako animaliak ehizatzeke baino ez. Zauritutako orkatza aurkitzen ez bada ere, dagoen kupotik deskontatuko da.

## 7. Uxaldi modalitatean ehizatzeke araudi espezifikoko osagarria

7.1.- Uxaldiak mistoak izan daitezke (oreinetako, basurdetako edo horietako bietako baimendutako ehizaldiekin batera egiten badira), edo berariaz orkatzak ehizatzekeak (harrapatzeke espezie bakarra orkatza bada).

7.2.- Uxaldi misto bidez ehizatzea aukeratuz gero, Mendi Zerbitzuari horien berri emateko orduan, orkatzak harrapatuko diren basurde edo oreinen uxaldi baimenduen datak edo uxaldi espezifikoen datak adierazi beharko dira.

7.3.- Uxaldi mistoek foru agindu honen II. eranskinean basurdeak uxaldian ehizatzeke xedatutakoa bete beharko dute.

7.4.- Orkatzen uxaldi espezifikokoak: orkatz eme zein arren edo emeen uxaldi espezifikokoak ezin izango dira egin ehiza esparruan orein edo basurde uxaldiak baimenduta dauden egunetan.

7.5.- Uxaldi espezifikoko horietarako ehiza taldeak, gutxienez, 5 ehiztarik eta, gehienez, 20 ehiztarik osatuko dituzte. Txakurrik ez erabiltzea (uxaldi isilak) edo txakur txikiak erabiltzea gomendatzen da. Uxaldiak 100 hektarea baino gutxiagoko eremuetan egingo dira. Eremu horretan, kupoa bete arte, egunean nahi beste harrapaldi egin ahal izango dira.

## 8. Zigilua jartzea

8.1.- Ehizatutako orkatz guztiei (ar zein eme) zigilua jarri beharko zaie, berdin du zein ehiza modalitatetan harrapatu diren.

8.2.- Zigilua adajean jarriko zaio animaliarri, adarrak hazita badauzka; eta atzeko hanketako batean, emea bada edo hazitako adarrik ez badu, plastikozko horzdun banda baten bidez sendo lotuta egoteko moduan, eta gidatzat balioko du haren jatorria ziurtatzeko eta garraioa baimenduta dagoela egiaztatzeke.

8.3.- Zelatan ehizatuz gero, pieza hartzen den momentuan jarriko da zigilua.

8.4.- Animaliak, zigilatutakoan, neurtu eta pisatu egingo dira, eta horretarako fitxa biometrikoa beteko da, ezarritako ereduaren arabera. Fitxa hori behar bezala beteta aurkeztu



beharko da, dagokion zigilu zatiarekin batera, ehizaldia egin eta gehienez ere 10 eguneko epean, ehiza esparruen elkartetan, ehiza esparrua horietako bateko partaidea bada, edo Ehiza eta Arrantza Atalean, gainerako ehiza esparruen kasuan.

## 9. Segurtasuna

9.1.- Era berean, zelataldietan segurtasun neurriak ahalik eta zorrotzenak izango dira, istripuak saihesteko.

9.2.- Ehiza modalitate guztietan esparruan ibilgailuz egiten diren joan-etorrietan, arma une orotan hutsik eta kargatu gabe eraman beharko da, hau da, kartutxorik ez daukala ez biltegian, ez ganberan. Gainera, zorroan sartuta eraman beharko da arma.



## VI. ERANSKINA

### **KUARTANGOKO EHIZA ESPARRU SOZIALEKO OILAGORRAREN, BASURDEAREN ETA OREIN EMEEN EHIZA APROBETXAMENDUA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA**

Foru agindu honen lehenengo xedapeneko seigarren atalean xedatutakoa garatzeko, Kuartangoko ehiza esparru sozialeko oilagorraren, basurdearen eta orein emeen ehiza aprobetxamendua arautzen duen araudi espezifikoak ezarri behar da, bai eta bertan ehizatze baimendutako aldia eta baimenen zozketa eta jaulkipena. Horretarako, honako idatz zati hauek zehazten dira:

#### **A.- Oilagorra ehizatzea:**

##### **1.- Ehizari buruzko arau orokorrak:**

1.1.- Kuartangoko ehiza esparru sozialaren zonifikazioa:

Guztira, sei ehiza lote finkatzen dira, 1etik 6ra arte zenbakituta. Hauek dira lote horien izenak: (1) Tortura - Zuhatzu iparraldea, (2) Zuhatzu hegoaldea -Aprikano ekialdea, (3) Iarto, (4) Marinda, (5) Villamanca eta (6) Uribarri - Aprikano mendebaldea.

1.2.- Baimendutako egunak:

Ostegun, larunbat eta jaiegunak (igandeak izan ezik) izango dira ehizan jarduteko egun baimenduak, urte bateko azaroaren 1etik hurrengo urteko urtarrilaren 31 arte, salbu eta abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a eta 6a.

1.3.- Baimendutako ordutegia:

8:30etik 14:30era jardun ahal da ehizan.

1.4.- Harrapatu daitezkeen espezieak:

oilagorra (*Scolopax rusticola*) baino ezin da harrapatu.

1.5.- Ehiza modalitateak:

Onartutako ehiza modalitate bakarrak dira “eskuan” eta “saltoan”.

1.6.- Ehiza egunen mugaketa. Ehiza esparru soziala erabiltzen duen edozein pertsonak (herrikoa, Araban federatua, lurraldekoa, estatukoa nahiz Europar Batasuneko delarik) denboraldian zehar ehizan egin dezakeen egunak, dela titular moduan, dela eskopetadun laguntzaile moduan, gehienez ere hiru izango dira.





1.7.- Ehiztariak sailkatzeko, kontuan edukiko da haien NANean ageri den helbidea, errolda ziurtagiriaren bitartez beste helbide bat dutela egiaztatu ezean. Arabako Lurraldeko Ehiza Federazioan federatutakoek indarrean izan beharko dute federazioaren lizentzia, bai baimena eskatzen dutenean, bai baimen hori erabiltzen dutenean.

Horiek horrela, herriko ehiztari izango dira bizilekua ehiza esparru sozialaren geografia eremuko lurren jabe diren herrietan daukaten eta Kuartangoko Udalak urtero eskaintzen duen zerrendaren barruan dauden pertsonak; lurraldeko ehiztari, bizilekua Arabako Lurralde Historikoko gainerako herrietan daukatenak; eta estatuko edo Europar Batasuneko ehiztari, bizilekua lurralde honetatik kanpo daukatenak.

1.8.- Baimen kopurua eta harrapaketa kupoak:

Lote bakoitzean bi baimen emango dira, eta ehiztari bakoitzak berea izango du; hala ere, laguntzailea izan dezakete, eskopetarekin ala eskopetarik gabe. Baimen bakoitzeko hiru oilagor harrapatu ahal izango dira, baimenaren titularra lagunduta joan ala ez.

1.9.- Txakurrak:

Erabil daitezkeen txakurrak, gehienez ere, hiru izango dira baimen bakoitzeko, ehiztaria bakarrik joan nahiz berekin laguntzailea eramanez. Ehiztariak berekin eramaten dituzten txakurrak behar bezala identifikatuta egon beharko dira, txakurren osasun kartillarekin eta dagokien mikrotxiparekin. Mikrotxipa nahitaezkoa ez den lekuetako txakurrek euren identifikazio txapa izan behar dute aldean. Behar bezala identifikatuta ez dauden txakurrak ezin izango dira erabili ehiza egunean.

## **2.- Baimenen zozketa, jaulkipena eta erabilera arautzen dituzten arauak:**

2.1.- Baimenen banaketa.

Ehiza denboraldi bakoitzean dauden baimen guztietatik, hasiera batean, ehuneko 50 lurraldeko ehiztariarentzat izango dira, eta gainerako ehuneko 50, besteentzat. Ehuneko horiek eskaintzaren eta eskariaren arabera alda daitezke.

2.2.- Eskaerak:

Ehiza denboraldirako baimenen zozketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko urte bakoitzeko irailaren 1etik 15era arteko epea izango da, bi egun horiek barne. Jarritako epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte herriko ehiztariak, Arabako Lurraldeko Ehiza Federazioan federatutakoek, lurraldekoek eta estatuko edo EBkoek, horretarako inprimaki normalizatuetan.

Ehiza esparru sozial honetako zozketa batean lehenengo aldiz parte hartzen badute, beren NANaren fotokopia erantsi beharko dute.



Herriko ehiztariak gainerako eskatzaileen baldintza berberak bete beharko dituzte, eta lurraldekotzat hartuko dira, baimenen banaketaren ondorioetarako; Arabako Lurraldeko Ehiza Federazioan federatuta dauden ehiztariak, berriz, dagokien federazioaren indarreko lizentzia aurkeztu beharko dute.

Eskaera bakarra onartuko da pertsonako. Bat baino gehiago aurkeztuz gero, denak baliogabetuko dira. Era berean, behar bezala beteta aurkezten ez diren eskaerak ere ezeztatuko dira, eta epez kanpo aurkezten direnak ere bai. Posta bidez bidalitako eskaerei dagokienez, zigilu-markan jarritako data hartuko da kontuan.

### 2.3. Zozketa:

Zozketa urte bakoitzeko irailaren 28an egingo da, 11:00etan. Egun hori balioduna ez bada (larunbata, igandea edo jaieguna), hurrengo egun baliodunean egingo da, Arabako Foru Aldundiko Ehiza eta Arrantza Ataleko bulegoetan. Jendaurreko ekitaldia izango da eta haren akta egingo da.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, ehiztariak taldeka bilduko dira, Araban federatuak, lurraldekoak edo estatukoak/EBkoak diren kontuan hartuta, eta aukeratu duten egunaren arabera. Hauek izango dira zozketan parte hartzeko sailkatutako taldeak:

1. taldea: Estatuko edo EBko baimenak.

2. taldea: Federatuen baimenak eta lurraldekoak. Honen barruan sartuko dira herriko ehiztariak.

Zozketa egunean, talde bakoitzean zenbaki bat aterako da, eta horretatik aurrera sekuentzia batean oinarrituta zehaztuko dira baimena aukeratu dezaketen pertsonak, dauden taldearen eta unean-unean dagoen eskaintzaren barruan. Sekuentzia hori kalkulatzeko, onartutako eskaeren kopurua talde bakoitzerako dauden baimen kopuruaren artean zatituko da.

### 2.4. Baimenak jaulkitzea:

#### 2.4.1 - Txanda murriztua:

Zozketa egin eta gero, esleipendun suertatu diren pertsonak eskutitzez jakinaraziko zaizkie aukeratu ditzaketen eguna eta ordua, beraiek parte hartu duten taldearen arabera. Telefonoz deitu beharko dute aukera egiteko.

Txanda murriztuan zenbat baimen eska daitekeen zehazteko, eskaintza eta eskaera hartuko dira kontuan.

#### 2.4.2 - Txanda irekia:

Eman gabe gelditzen diren baimen guztiak Arabako Foru Aldundiaren Ehiza eta Arrantza Atalean emango dira (Probintzia plaza, 5, beheko solairua) edo 945 181877 telefono



zenbakira deituta, jendea hartzeko ordutegian (astelehenetik ostiralera, 08:15etik 14:30era arte). Baimen horiek gaitutako edozein ehiztariaren eskura egongo dira, zozketan parte hartu izana ala ez.

#### 2.5.- Baimenen zenbatekoaren ordainketa:

Edozein kasutan ere, baimenak erreserbatzen dituzten ehiztariak diru sarrera egokiaren bidez ordaindu beharko dituzte beren eskaera egiteko garaian adierazten zaien epearen barruan, eta epe horretan hala ez egitekotan haiei uko egiten dietela iritziko da.

Baimenen prezioak Gobernu Kontseiluaren foru dekretuz finkatuko dira, prezio publikoak onesten dituen foru dekretuz, hain zuzen.

Baimenaren zenbatekoa zehazteko, baimenaren titularraren izaera kontuan edukiko da. Baldin baimena ez badu titularrak erabiltzen, edo laguntzaileren batekin erabiltzen bada, pertsona horien sailkapena kontuan hartuko da; baldin horietakoren bat ordaindutakoa baino prezio garestiagoko baimena izatea eskatzen duen mota bati atxiki behar bazaio, zenbateko bien arteko aldea ordaindu beharko zaie ehiza esparru sozialeko langileei agirien kontrolean. Hala egiten ez bada, baimena baliogabetuko da, eta horren zenbatekoa ez zaio itzuliko titularrari.

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, eguraldiarengatik, harrapakinen babes gabeziarengatik, edo behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiengatik ehizan ezin egin daitekeenean baino ez da itzuliko baimenengatik ordaindutako dirua.

#### 2.6.- Baimenaren erabilerari buruzko arauak:

Ehiza eguneko 08:00etan, indarrean dauden ondoko agiriak aurkeztuko ditu baimenaren titularrak, eta, laguntzaileren bat badarama, hark ere bai, ehiza esparruak Zuhatsu Kuartangon duen bulegoan:

Aginduzko diru zenbatekoa ezarritako epealdiaren barruan ordaindu dela frogatzen duen ordainketa gutuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza baimena, indarrean dagoena, nortasuna egiaztatzen duen agiri ofiziala (NANA, AIZA, gidatzeko baimena edo pasaporte), arma baimena, ehizan egingo duten guztien eskopeten aseguru eta gida eta ehizarako erabiliko dituzten txakur guztien osasun kartillak. Jatorrizko agiriak zein kopia konpultsatuak aurkeztu daitezke.

Aseguruak indarrean egon behar du eta bat etorri behar du urtarrilaren 21eko 63/1994 Errege Dekretuak, nahitaez eduki beharreko ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguruaren arautegia onartzen duenak, xedatutakoarekin (BOE, 40. zk., 1994ko otsailaren 16koa).

Federazioaren indarreko lizentzia, Arabako Lurraldeko Ehiza Federazioan federatutakoek. Baldin lizentzia hori indarrean ez badu, ehiztariak dagokion kategoriako gehigarria ordaindu



beharko du ehizatzeke, eta ez du eskubiderik izango ordainduta daukan baimenaren zenbatekoa itzul dakion eskatzeko.

Baimenaren titularra izan ez eta ordezeko moduan joatekotan, titularraren idatzizko baimena eta beraren agiri guztien fotokopia aurkeztu beharko ditu.

Agiriak aztertu eta gero, gidari moduan jardungo duen pertsona bat izendatuko zaio.

Araudia edo gidari lanetan diharduenak esandakoa betetzen ez bada edo ehiza alorreko arau-hauste administratiboren bat egin dela uste izanez gero, gidari moduan diharduen pertsonak berehalakoan amaitutzat eman ahal izango du ehiza eguna. Batera zein bestera, baimenarengatik ordaindutakoa galduko da. Era berean, harrapatutako ehizaki kopuruaren berri eman beharko zaio pertsona horri.

## **B- Orein emeak eta basurdeak ehizatzea:**

### **1.-Ehizatzeke arau orokorrak:**

1.1.- Kuartangoko ehiza esparru sozialaren zonifikazioa:

Hainbat sektore edo eremu ezartzen dira ehiza larrian aritzeko, hain zuzen basurdeak eta orein emeak ehizatzeke uxaldiak egiteko. Uxaldi guztiak “arriskua eta mentura” modalitatean egingo dira.

1.2.- Baimendutako egunak:

Oro har, 20 uxaldi egin ahalko dira egun baimendu hauetan: urri, azaro, abendu eta urtarrileko igande eta jaiegunak, salbu eta abenduaren 25a, urtarrilaren 1a eta 6a eta otsaileko larunbat, igande eta jaiegunak.

1.3.- Baimendutako ordutegia:

8:30etik 16:30era jardun ahal da ehizan.

1.4.- Harrapatu daitezkeen espezieak:

Basurdeak eta oreinak bakarrik ehizatu daitezke, eta oreinetan, emeak bakarrik.

1.5.- Ehiza modalitatea:

Baimentzen den ehiza modalitate bakarra uxaldia izango da, ehiztariek eta uxatzaileek osatutako taldeetan, behar dituzten txakurrekin eta lurrotako ibilgailuekin. Uxaldietan ehizari buruzko dagokion urteko foru agindu honen I. eranskinean ehiza mota horretarako ezarritako baldintza orokorretan barne koordinazioaz, jantziez, armez, munizioaz eta ehiztarien kopuruez ezarritako arauak bete behar dira.



#### 1.6.- Ehiza egunen kopurua:

Oro har, ehiza talde bakoitzak egun batean egin ahal izango du ehizan denboraldi bakoitzean. Salbuespena izango dira Kuartangoko herriko ehiza taldeak; horiei, hasiera batean, hamar uxaldi esleituko zaizkie. Eskaintzaren arabera, zozketa egin eta baimenak eman ondoren txanda ireki bat ezarri ahal izango da soberako baimenak eskuratzeko. Hori gertatzen denean, taldeak modalitate honetako ehiza egun gehiago edukiko ditu ehiza esparru sozialean.

#### 1.7.- Ehiza taldeen sailkapena:

Ehiza taldeak ondoko kategoria hauetakoak izan daitezke:

Tokikoak: taldeko ehiztarien ehuneko 20, gutxienez, Kuartangoko herritarrak dira.

Lurraldekoak: ehiza taldeko ehiztariak Arabako ehiza esparru bateko ehiza aprobetxamenduaren titularrak dira (norbanakoak, klubak edo elkarteak) edo, lurraldeko ehiza esparru bateko ehiza aprobetxamenduaren titularrak ez izan arren, Arabako Lurralde Historikoan daukate egoitza.

Estatukoak edo erkidegokoak: taldeko ehiztariak Arabako Lurralde Historikotik kanpo daukate egoitza.

Herriko ehiza taldeetarako, herrikotzat joko dira Kuartangoko ehiza esparru sozialaren errentamendu kontratuaren II. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen dituzten ehiztariak. Lurraldeko gisa sailkatutako ehiza taldeak Arabako ehiza esparruren bateko ehiza aprobetxamenduaren titular izan behar dira (horretarako, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuan dagoen zerrenda ofizialean egon behar dira); edo, bestela, Arabako Lurralde Historikoa izan behar dute bizileku talde horretako ehiztari guztiek. Gainerako ehiza taldeen kasuan, taldekideen NANetan agertzen diren helbideak hartuko dira kontuan; norbaitek NANean agertzen den egoitzan gabe beste batean bizi dela frogatu nahi badu, errolda ziurtagiria aurkeztu behar du.

#### 1.8.- Ehiztarien kopurua:

Ehiza taldeetako postu kopurua hamabi eta berrogeita hamar artekoa izango da. Gutxienez, hamar txakur izan beharko dituzte, behar bezala identifikatuta, eta ez da mugarik ezartzen, ez behetik eta ez goitik, uxatzaile kopuruarentzat.

Uxatzaileetako bik eskopeta eduki ahal izango dute piezak akabatzeko edo txakurrak erasoetatik babesteko.

#### 1.9.- Txakurrak:

Ehiza taldeek gutxienez hamar txakur eraman behar dituzte berekin, behar bezala identifikatuta: txakur bakoitzak bere osasun kartilla eta mikrotxipa izan behar ditu.



Mikrotxipa nahitaezkoa ez den lekuetako txakurrek euren identifikazio txapa izan behar dute aldean. Behar bezala identifikatuta ez dauden txakurrak ezin izango dira erabili ehiza egunean.

## **2.- Baimenen zozketa, jaulkipena eta erabilera arautzen dituzten arauak:**

### 2.1.- Baimenen banaketa.

Ehiza denboraldi bakoitzean egingo diren uxaldien erdiak (ehuneko 50) Kuartangoko herriko ehiza taldeentzat izango dira hasiera batean, eta beste erdiak gainerakoentzat. Ehuneko horiek ez dira behin betikoak: baimen eskaintzaren eta eskariaren arabera aldatu daitezke.

### 2.2 Eskaerak:

Ehiza zozketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko irailaren 1etik 15era arteko epea izango da, bi egun horiek barne. Jarritako epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Zozketan parte hartzeko eskaera ehiza taldearen ordezkari batek aurkeztu behar du berariazko inprimaki normalizatuan; ordezkariak taldearen izena idatzi behar du eta nolako sailkapena daukan zehaztu behar du, aurreko 1.7 idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz. Horrez gainera, taldeko kide guztien zerrenda aurkeztu behar da, eta horrekin batera denen NAN, AIZ, pasaporte edo gida baimenen fotokopiak.

Ehiza talde bakoitzak eskaera bat bakarrik aurkeztu dezake denboraldi bakoitzean. Pertsona baten izena ehiza talde batean bakarrik agertu daiteke; beraz, norbait bitan edo gehiagotan agertuz gero, denen eskaerak ezeztatuko dira eta ezin izango du parte hartu zozketan. Era berean, behar bezala beteta aurkezten ez diren eskaerak ere ezeztatuko dira, eta epez kanpo aurkezten direnak ere bai.

### 2.3. Zozketa:

Zozketa urte bakoitzeko irailaren 28an egingo da, 11:00etan. Egun hori balioduna ez bada (larunbata, igandea edo jaieguna), hurrengo egun baliodunean egingo da, Arabako Foru Aldundiko Ehiza eta Arrantza Ataleko bulegoetan. Jendaurreko ekitaldia izango da eta haren akta egingo da.

Zozketa egunean, zenbaki bat aterako da, eta horretatik aurrera sekuentzia batean oinarrituta zehaztuko dira dagozkien baimenak aukeratu ditzaketen ehiza taldeak. Sekuentzia hori kalkulatzeko, onartutako eskaeren kopurua dauden baimenen artean zatituko da.

### 2.4. Baimenak jaulkitzea:

#### 2.4.1 - Txanda murriztua:

Zozketa egindakoan, baimena jaso duten taldeei postaz jakinaraziko zaie noiz aukeratu dezaketen uxaldia egitea (eguna eta ordua); telefonoz adierazi beharko dute.



#### 2.4.2 - Txanda irekia:

Eman gabe gelditzen diren baimen guztiak Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuko Arrantza eta Ehiza Atalean emango dira (Probintzia plaza, 5, beheko solairua), bertara joanda, edota jendea hartzeko ordutegian (08:15etik 14:30era arte) 945 181877 telefono zenbakira deituta. Baimen horiek edozein ehiza taldek eskuratu ditzake, zozketetan parte hartu duen ala ez kontuan hartu gabe.

#### 2.5.- Baimenen zenbatekoaren ordainketa:

Baimen bat erreserbatzen duten ehiza taldeek haren zenbatekoa ordaindu behar dute eskaera aurkeztean adierazten zaien epearen barruan; epe horretan ordaindu ezean, baimenari uko egin diotela pentsatuko da eta beste ehiza talde bati eman ahal izango zaio.

Baimenen prezioak Gobernu Kontseiluaren foru dekretuz finkatuko dira, prezio publikoak onesten dituen foru dekretuz, hain zuzen.

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, eguraldiarengatik, harrapakinaren babes gabeziarengatik, edo behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoiengatik ehizan ezin egin daitekeenean baino ez da itzuliko baimenengatik ordaindutako dirua.

#### 2.6.- Baimenaren erabilerari buruzko arauak:

Uxaldi egunean ehiza taldeko kideak goizeko 08:00etarako egon behar dira ehiza esparruko bulegoan, Zuhatsu Kuartangon; taldeko koordinatzailea eta solaskide lanak egiten dituenak ondoko agiri hauek aurkeztu behar dizkie ehiza esparruko langileei:

Aginduzko diru zenbatekoa ezarritako epealdiaren barruan ordaindu dela frogatzen duen ordainketa gutuna.

Uxaldian ariko diren ehiza taldeko kideen zerrenda (ehiztariak eta uxatzaileak); bakoitzaren izena eta bi abizen agertu behar dira eta NANaren, AIZaren, gida baimenaren edo pasaportearen zenbakia, eta ehiztaria edo uxatzailea den zehaztu. Ehiza taldearen koordinatzailea zerrendako lehena izan behar da; berak edukiko du taldekideen jardunaren erantzukizuna, eta indarreko arauak errespetarazi beharko dizkie. Ordezkoa eduki behar du, hain zuzen ere zerrendako bigarren kidea. Halaber, ehizaldia ondo burutzeko asmoarekin, uxaldia hasten denean uxatzaile taldearen koordinatzailea izendatuko du; horren lana ehizaldian zehar uxatzaileei arauak errespetaraztea izango da.

Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza baimena, indarrean dagoena, nortasuna egiaztatzen duen agiri ofiziala (NANA, AIZA, gidatzeko baimena edo pasaportea), arma baimena, ehizan egingo duten guztien eskopeten aseguruia eta gida eta ehizarako erabiliko dituzten txakur guztien osasun kartillak. Jatorrizko agiriak zein kopia konpultsatuak aurkeztu daitezke.



Aseguruak indarrean egon behar du eta bat etorri behar du urtarrilaren 21eko 63/1994 Errege Dekretuak, nahitaez eduki beharreko ehiztariaren erantzukizun zibileko aseguruaren arautegia onartzen duenak, xedatutakoarekin (BOE, 40. zk., 1994ko otsailaren 16koa).

Ehizan hasi aurretik ehiza esparru sozialeko langileek agiriak egiaztatuko dituzte, uxaldia egiteko lekuari buruz aholkuak emango dituzte eta jarraibideak emango dituzte ehizaldia ondo burutzeko. Horretarako, taldeko ehiztari bakoitzari identifikazio txartela emango diote, pertsonala eta besterenezina eta egun horretarako baino balio ez duena. Gainera, bilgune bat adostuko da ehizaldia amaitutakoan ehiza taldeko kide guztiak bertan batzeko eta, hala, eguneko jarduna amaitutzat jo ahal izateko.

Araudia betetzen ez bada edo ehiza alorreko arau hauste administratiboren bat egin dela uste bada, AFAk izendatutako langile koordinatzaileak berehala amaitutzat eman ahal izango du ehiza eguna. Batera zein bestera, baimenarengatik ordaindutakoa galduko da, eta dagokion salaketa egin ahal izango da.

Ehizaldia amaitutakoan ehiza taldeko koordinatzaileak ehiza esparru soziala kudeatzen duten langileei azaldu beharko die, lekuan bertan, zenbat animalia ikusi dituzten eta zenbat harrapatu dituzten.

#### 2.7.- Uxaldien antolamendua:

Arabako Foru Aldundiak proposatu ahalko du non egin uxaldia ehiza egun bakoitzean. Horretarako, aurretik egindako basurde zantzuen miaketaren ondorioak hartuko ditu oinarritzat; miaketa ehiza esparru sozialeko langileek egingo dute uxaldiaren aurreko 24 orduetan, gehienez; edo espezie horrek nekazaritza kalteak eragin dituela egiaztatu duen tokietan.

Uxaldia ehiza esparru sozialean ezarritako zona edo eremuetako bitan egin daiteke gehienez ere, eta basurdeei eta orein emeei bakarrik egin ahal izango zaie tiro.

Lehen harrapaldia amaitutakoan beste bat egin ahal izango da, baldin eta ehiza esparru sozialeko langileen ustez horretarako astirik badago baimendutako ordutegiaren barruan.

Ehiza esparru sozialeko langileek aholkuak emango dizkiote ehiza taldeko koordinatzaileari uxaldiaren antolamenduz. Esaterako, azaldu ahalko diote non dagoen uxaldiaren eremua; non dauden ehiza postuak, horretarako gaituak eta behar bezala seinalizatuak, non askatu behar diren txakurrak eta nondik nora egingo den uxaketa. Ehiza esparru sozialeko langileek ipini eta kenduko dituzte uxaldiaren berri ematen duten nahitaezko kartelak. Horrez gain ehiza postuak banatzen eta jartzen lagunduko dute, eta uxatzaileekin batera joango dira uxaketaren abialekura.

Uxaldian emisoreak edo bestelako telekomunikazio baliabideak erabili nahi dituzten ehiza taldeek, horiek erabiltzeko behar diren baimenak edukitzeaz gainera, horren berri eman behar dute eta baliabideok erabiliko dituzten pertsonen zerrenda aurkeztu behar dute. Ehiza esparru





sozialeko langileei zer egingo duten eta komunikazioetarako zer maiztasun erabiliko duten azalduko diete; maiztasun bat bakarrik erabili behar da ehizaldi osoan.

Uxaldiek arratsaldeko 16:30etarako amaitu beharko dute, hau da, ordurako ehiza taldeko kide guztiek egon beharko dute hasieran ezarritako bilgunean. Ordu horretatik aurrera txakurrak edo ehizatutako piezak biltzeko ardura duten pertsonak soilik egon daitezke uxaldirako ezarritako eremuetan, ehiza esparru sozialeko langileek baimena emanaz gero. Nolanahi ere, bilketa lan horiek 19:00etarako amaituta egon beharko dute, edo bertan behera utzi beharko dira, eta ehiza taldeko kide guztiek menditik irten beharko dute.

Uxaldian aritzen diren pertsonak aurreko idatz zatian ezarritako ordutegian baino ezin dira ibili motordun ibilgailuetan, eta ibili eta sartu ere ehiza esparru sozialeko langileek esaten dieten tokietatik.